

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5330

EBAZPENA, 2011ko urriaren 3koa, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearena. Honen bidez, lanbide-heziketako ikasgeletan, tailerretan eta ikastetxeetan praktika pedagogiko egokiei eta irakasleen kudeaketari sariak ematen dituen, 2010eko uztailaren 20ko 206/2010 Dekretuaren babesean (EHAA, 2010eko uztailaren 30ekoa) 2011ko edizioan.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko uztailaren 206/2010 Dekretuak lanbide-heziketako ikasgeletan, tailerretan eta ikastetxeetan praktika pedagogiko egokiei eta irakasleen kudeaketari emandako Sariak arautzen ditu, eta deialdiaren 7. artikuluko 5. idatz-zatian ezartzen denez, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeak ebatzi eta EHAAan argitaratuko dira.

Ondorioz, hau

EBATZI DUT:

1.– Lanbide Heziketako ikasgeletako, tailerretako eta ikastetxeetako praktika pedagogiko egokiei eta irakasleen kudeaketari sariak ematea 2011ko edizioan, uztailaren 20ko 206/2010 Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.– Praktika Onen sariak irabazi dituzten hautagaien zerrenda argitaratzea hautatutako modalitateka, Dekretuko 1.2 artikuluaaren arabera. I. eranskinean zerrendatzen dira sarituak.

3.– Sarituei modalitateka, sari hauek dagozkie:

- Lehenengo sariak: 2.500 euroko diru-saria izango da, saritutako hautagaiko.
- Bigarren sariak: 1.500 euroko diru-saria izango da, saritutako hautagaiko.

4.– Hutsik deklaratzeko lehenengo sarietatik bat: Dekretuko 3.aukerakoa. Izan ere, erabaki da aurkeztutako hautagaiak ez direla heltzen eskatutako mailara.

5.– Hutsik deklaratzeko bigarren sarietatik bi: bat Dekretuko 2. aukerakoa da eta beste bat, 3. aukerakoa. Izan ere, erabaki da aurkeztutako hautagaiak ez direla heltzen eskatutako mailara.

6.– Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzako web orrian argitaratzea hautagai sarituak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta beraren kontra gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hilabeteko epean.

2011ko azaroaren 4a, ostirala

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 3a.

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea,
JOSÉ CARLOS CRESPO VELASCO.

I. ERANSKINA**Lehen saria**

Aukera	Proiektua	Irakasle	Ikastexea	Herria
1	Dinux, una distribución personalizada y gratuita para cada centro educativo vasco	Aitor López de Aberasturi	Diocesanas	Vitoria-Gasteiz
1	Ulertu, Egin, Azertu, Baieztatu Hezkuntzarako Metologia Fabrikazio Mekanizoko Prozesuetan	José María Furundarena Etxeberria-Bereyarza	IEFPS Usurbilgo Lanbide Eskola GLHBI	Usurbil
2	CD para cursos de formación	Ismael Barbero Martínez	Instituto Politécnico Jesús Obrero Jesuitak	Vitoria-Gasteiz
2	Plataforma SIACCO, sistema de actividades complementarias para el módulo de instalaciones fotovoltaicas	Iñaki Mújica Aizpurua	IEFPS Usurbilgo Lanbide Eskola GLHBI	Usurbil
3	Gela ekipuen kudeaketa	Miren Iartza Ansa	Goierri Eskola	Ordizia
4	Dirección por valores	Nazaret Ramos Julián	Lasalle Berrozpe	Andoain
4	Hacia la gestión por procesos con las personas	Nagore Lozano Zarandona	Maristak Ikastetxea	Durango

Bigarren saria

Aukera	Proiektua	Irakasle	Ikastexea	Herria
1	Itinerario formativo en competencias y actitudes para profesionales sanitarios	Lucila Larraga Zorrilla	Centro Educativo Arangoya	Bilbao
1	Rastrillo solidario	Luisa Pardo Escalona	CPEIPS San José de Calasanz HLBHIP	Santurtzi
2	Portafolio digital MAHARA	Enrique Munerol Valdés	CPES Escuela de Química y Electrónica. Jesuitas	Indautxu-Bilbao
3	Informatización de la ayuda en la inserción laboral del alumnado	Xanti Alberdi Zubizarreta	IEFPS Tolosaldea GLHBI	Tolosa
4	Konpetentzien ebaluaketa proiektuen metodología erabiliz	Joseba Ramos García	Goierri Eskola	Ordizia
4	La participación de los interesados en la mejora continua del comportamiento ambiental de Jesús Obrero	Eduardo Ochoa de Aspuru Gutiérrez	Instituto Politécnico Jesús Obrero Jesuitak	Vitoria-Gasteiz